

Herri Kirol Txapelketa

2014/06/06

Atzo zabaldu zituzten Garagardo Azokaren ateak eta zabalera ekitaldia Herri Kirol Txapelketa batekin ospatu zen, azken urteetan bezela. MUko ikasle talde bat bertaratu zen eta Rugbyko Jokalariekin talde nahasiak osatu ostean 3 talderen arteko lehiari ekin zioten giro ederrean. Ingudea, trontza, txingak, giza frogak eta sokatira izan ziren egin beharrekoak.

Gustora ibili ziren guztiak eta nola ez, Karpan afaltzeko "codillo", oilasko, patata eta garagardo ezberdinentzako tiketak jaso zituzten opari beraien parte hartzeagatik. Parte hartzaile guztiek karpan afaldu zuten gustora.

Ea datorren ikasturtean talde gehiago animatzen diren!



Sokatirako momentu bat